



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2018KO MARTXOAREN 23AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Etorri diren zinegotziak:

Itziar Arratibel Imaz

Jon Mikel Iglesias Otegui

Maria Iciar Jauregui Huarte

Lierni Muñoa Salaverria (Kontuhartzailea)

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2018ko martxoaren 23an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2018KO MARTXOAREN 9KO AKTAREN ONARPENA

2018ko martxoaren 9an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2018ko martxoaren 9an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.-2018KO MARTXOAREN 16KO KIROL BATZORDEAREN INGURUKO ERABAKIAK

Azken unean jakinarazi zaio idazkariari ez dela Kirol Batzordea bildu eta ondorioz ezingo dira aurreikusita zeuden gaiak onartu.

HIRUGARRENA:

3.-2018KO MARTXOAREN 21EKO KULTURA ETA GAZTERIA BATZORDEAREN IRIZPENEN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK.

3.1 IBARRAKO KULTUR TALDE ETA ELKARTEEI DIRU-LAGUNTZAK 2017; ZURIKETAK

Ibarrako Udalak 2017ko uztailaren 21an eginiko Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuran, besteak beste, Ibarrako kultur talde eta elkarteei **1.0000.430.334.00.00 “Kultur taldeei diru-laguntzak”** udal kontu-sailari egotzita, Ibarrako kultur elkarteei diru-laguntzak ematea erabaki zuen.

Diru-laguntza jaso zuten elkarteek 2017ko ekainaren 14an 113. GAOn. Argitaratutako **“Ibarrako irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2017. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak”** oinarrietan diru-laguntzak zuritzeko ezarritako betekizunak bete ondoren, zuriketa horien txosten teknikoa eta kontu-hartzailearen adostasuna izanik, Batzordeak

2018ko martxoaren 21an eginiko Kultura eta Gazteria batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA:

LEHENENGOA.- Alurr Dantza Taldeak, Parrokiko Koruak eta Sendi-Ekintza elkarteak aurkeztutako diru-laguntzen zuriketei onspena ematea, eta ondorioz, zehazten denaren arabera, dagokien 2017ko diru-laguntzaren geratzen den %40a ordaintzea:

TALDEA	40%
ALURR DANTZA TALDEA	3.080,00 €
PARROKIKO KORUA	440,00 €
SENDI-EKINTZA	160,00 €
GUZTIRA	3.680,00 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA: Hauspibarra Kultur elkarteak 1.399,14 euroko balantze positiboa duela baieztatuta, kobratu behar duen diru-laguntzaren %40tik kopuru hori gutxitzea, eta ondorioz, zehazten den kopurua ordaintzea:

TALDEA	40%	Aldeko balantzea	ORDAINTZERA
HAUSPIBARRA	3.360,00 €	1.399,14 €	1.960,86 €
GUZTIRA	3.360,00 €	1.399,14 €	1.960,86 €

HIRUGARRENA: Ibarra kultur elkarte eta taldeei dagokien 2017 urteko programazioa garatzeko diru-laguntzen %40aren guztirako 5.640,86 euroko gastua, 1.0000.430.334.00.00 2017 "Kultur taldeei transferentziak" kontu-sailari egozteak.

LAUGARRENA: Alurr Dantza Taldeak dantza lokala mantentzeko jasotako diru-laguntzaren zuriketari onespina ematea, eta ondorioz, geratzen den laguntzaren %40a ordaintzea:

TALDEA	40%
Azkueko lokala mantentze dirulaguntza	800,00 €

BOSGARRENA: Dantza lokalaren mantentzeari dagokion gastua 1.0000.434.334.20.00 2017 "Dantza hitzarmena transferentzia" kontu-sailari egozteak.

SEIGARRENA: Erabakiaren berri kontu-hartzaitzari ematea.

ZAZPIGARRENA: Erabakia interesatuei jakinaraztea.

LAUGARRENA:

4.-2018KO OTSAILAREN 7AN EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENEN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK

4.1. TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA: 2017KO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA.

Ikusita, 2017ko martxoaren 24ko Tokiko Gobernu Batzarrak 21.500 euroko diru-laguntza onartu zuela Tolosaldeko Komunikazio taldearentzat.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ikusita, akordio hartan aipatu kopurua bi ordainketatan egitea adostu zela: lehena (%70) onarpenarekin batera ordaintzeko eta gainerako %30a, erakundeak kitapena aurkeztu eta onartutakoan.

Ikusita, joan den abenduaren 5ean aurkeztu zuela Tolosaldeko Komunikazio Taldeak 2017ko gastuen kitapena eta jardueren memoria.

Ikusita, teknikariak kitapenari bere oniritzia eman diola.

2018ko otsailaren 7an eginiko Euskara eta Hezkuntza batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea Tolosaldeko Komunikazioa Taldeak aurkeztutako kitapena.

BIGARRENA.- Ordaintzea 2017tik pendiente dagoen diru-laguntzaren gainerako %30, hau da, 6.450,00 euro.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari (E) eta Kontuhartzaitzari (E) jakinaraztea.

BOSGARRENA:

5.-2018 FACK 000071-00 FAKTURAREN ONARPENA ETA ORDAINKETA AGINDUA

Dardarak S.L enpresak, 2018 FACK 000071-00, 27.005,41 euroko faktura aurkeztu du Kultur Etxean eszenatokiaren ekipamenduaren eguneratzearen kontzeptupean.

Fakturaren edukia egokia dela ikusi da.

Guztia azterturik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea Dardara S.L enpresak aurkezturiko 2018 FACK 000071-00 zenbakidun faktura, 27.005,41 eurokoa.

BIGARRENA.- Ordainketa egitea agintzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari (E) eta Kontuhartzaitzari (E) jakinaraztea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

SEIGARRENA:

6.- 2018 FACK 000053-00 FAKTURAREN ONARPENA ETA ORDAINKETA AGINDUA

Bixente Otegi Lizaso S.L enpresak, 2018 FACK 000053-00, 49.730,82 euroko faktura aurkeztu du bidearen konponketak eta zoladura kontzeptupean.

Fakturaren edukia egokia dela ikusi da.

Guztia azterturik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea Bixente Otegi Lizaso S.L enpresak aurkezturiko 2018 FACK 000053-00 zenbakidun faktura, 49.730,82 eurokoa.

BIGARRENA.- Ordainketa egitea agintzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari (E) eta Kontuhartzaitzari (E) jakinaraztea.

ZAZPIGARRENA:

7.- TOLOSALDEA MANKOMUNITATEAREN HONDAKINEN INGURUKO EKARPENA EGITEA ONARTZEA

2018ko martxoaren 15ean 597 erregistro zenbakiarekin Tolosaldea Mankomunitateak 28.425,85 euroko ekarpena egitea eskatzen dio Ibarra Udalarari Ibarra udalerriko hondakinen bilketa eta kudeaketatik.

Aurkezturiko ekarpenaren desglosea aztertu da eta egoki dela ikusi da.

Guztia azterturik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENA.- Onartzea Tolosaldea Mankomunitateak Ibarra Udalari eskatzen dion 28.425,85 euroko ekarpena egitea, Ibarra udalerrian hondakinen bilketa eta kudeaketatik.

BIGARRENA.- Ordainketa egitea agintzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari (E) eta Kontuhartzaitzari (E) jakinaraztea

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hogeita bost direnean, eta nik, idazkari naizenez, horixe egiaztatu nahi dut.